

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 2204

*EBAZPENA, 2022ko abenduaren 27koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko aginduan jasotako dirulaguntzen deialdia ebazten duena. Horren bidez, hondakinen araudia ezartzen eta ekonomia zirkularra Euskadin sustatzen laguntzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten da. Araudi hori 2022ko irailaren 21eko aginduak aldatu zuen, Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU berreskuratzeko-, eraldatzeko- eta erresilientzia-planaren esparruan.*

### GERTAKARIAK

1.– 2021eko urriaren 21ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Agindua, zeinaren bitartez EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten baita.

2.– 2021eko abenduaren 15ean amaitu zen eskabideak aurkezteko epea. 108 proiekturi lotutako 90 eskabide jaso ziren guztira. Laguntza jasotzeko eskatu diren proiektuak honela banatzen dira deialdian jasotako laguntza-lerroetan:

- 1. lerroa. Bilketa bereizi berriak ezartzea, bereziki biohondakinak, eta daudenak hobetzea: 58.
- 2. lerroa. Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea: 10.
- 3. lerroa. Bereizita bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa-instalazio berriak eraikitzea: 12.
- 4. lerroa. Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), hondakinak bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, etab.) instalazioei, tratamendu-instalazioen hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta Berreskuratutako Erregai Solidoa prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak: 28.

3.– Ondoren, 2022ko urriaren 4an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Agindua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena. Bertan, besteak beste, laguntzen deialdi honetarako hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura handitzea jasotzen da.

Horrela, hasierako Agindua aldatu ondorengo aurrekontu-zuzkidura hemezortzi milioi hiru mila seihun eta berrogeita hamasei euro eta berrogeita hamabi zentimokoa da (18.003.656,52), eta honela banatzen dira finantzaketa-lerroen artean:

- 1. lerroko.– Bilketa bereizi berriak ezartzea, bereziki biohondakinak, eta daudenak hobetzea. Gehienez sei milioi bederatziehun eta hogeita hamaika mila berrehun eta berrogeita bost euro eta zortzi zentimo (6.931.245,08) erabiliko dira.
- 2. lerroko.– Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea. Gehienez ere bi milioi bederatziehun eta hogeita bederlatzi mila ehun eta laurogeita hamalau euro eta laurogeita hamabi zentimo (2.929.194,92) erabiliko dira.

– 3. lerroako.– Bereizita bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa-instalazio berriak eraikitzea. Gehienez ere zazpi milioi berrehun eta hogeita hamabi mila ehun eta laurogeita hamasei euro eta laurogeita hamazazpi zentimo (7.232.196,97) erabiliko dira.

– 4. lerroako.– Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), hondakinak bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, etab.) instalazioei, tratamendu-instalazioen hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta Berreskuratutako Erregai Solidoa prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak. Gehienez ere bederatzehun eta hamaika mila eta hemeretzi euro eta berrogeita hamabost zentimo (911.019,55) erabiliko dira.

4.– 2022ko urriaren 11n, Balorazio Epaimahaia eratu zen eta deialdiaren ebazpen-proposamena egin zuen. Bertan zehaztu zituen dirulaguntza jaso zezaketen proiektuak, dirulaguntzaren zenbatekoa, ezetsitako eskabideak eta ezesteko arrazoiak.

Balorazio Epaimahaiak egindako aktan, 1. lerroa. Bilketa bereizi berriak ezartzea, bereziki biohondakinak, eta daudenak hobetzeari dagokionez, hau jasotzen da: diruz lagundu beharreko proiektuen proposamenarekin, eta proiektu bakoitzerako ezarritako gehienekoa kontuan hartuta, lerroari esleitutako zuzkidura nahikoa da diruz lagundu nahi diren proiektuak estaltzeko; linea horretako dirua ez da erabat agortzen.

Aitzitik, aktan jasotzen da 2. lerroa. Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea eta 4. lerroa. Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), hondakinak bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, etab.) instalazioei, tratamendu-instalazioen hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta Berreskuratutako Erregai Solidoa prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioen aurrekontu-zuzkidurak ez direla nahikoak dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak estaltzeko.

Horregatik, honako hau erabaki da, eta halaxe jaso da aktan:

– Soberan geratzen diren 1. lerroko («Bilketa bereizi berriak ezartzea, bereziki biohondakinak, eta daudenak hobetzea») hiru milioi hirurehun eta hirurogeita hamabost mila zazpiehun eta laurogeita sei euro eta berrogeita bi zentimotik (3.375.786,42) milioi bat laurogeita hamazazpi mila zazpiehun eta bederlatzi euro eta laurogeita hamar zentimo (1.097.709,90) 2. lerroari («Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea») esleitutako partidari gehitzea.

Ondorioz, 2. lerroan erabilgarri dagoen zuzkidura lau milioi hogeita sei mila bederatzehun eta lau euro eta laurogeita bi zentimokoa (4.026.904,82) izango da.

– 1. lerroaren gainerako zenbatekoa, hau da, bi milioi berrehun eta hirurogeita hemezortzi mila eta hirurogeita hamasei euro eta berrogeita hamabi zentimo (2.278.076,52), 4. lerroari («Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), hondakinak bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, etab.) instalazioei, tratamendu-instalazioen hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta Berreskuratutako Erregai Solidoa prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak») esleitutako partida handitzera bideratzea.

Ondorioz, 4. lerroan («Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), hondakinak bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, etab.) instalazioei, tratamendu-instalazioen hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta Berreskuratutako Erregai Solidoa prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak») erabilgarri geratzen den zuzkidura hiru milioi ehun eta laurogeita bederlatzi mila eta laurogeita hamasei euro eta zazpi zentimokoa (3.189.096,07) izango da.

5.– Beraz, lerro bakoitzerako aurrekontu-zuzkidura honako hau da:

– 1. lerroako.– Bilketa bereizi berriak ezartzea, bereziki biohondakinak, eta daudenak hobetzea. Gehienez hiru milioi bostehun eta berrogeita hamabost mila laurehun eta berrogeita hemezortzi euro eta hirurogeita sei zentimo (3.555.458,66) erabiliko dira.

– 2. lerroako.– Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea. Gehienez lau milioi hogeita sei mila bederatziehun eta lau euro eta laurogeita bi zentimo (4.026.904,82) erabiliko dira.

– 3. lerroako.– Bereizita bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko instalazio berriak eraikitzea. Gehienez ere zazpi milioi berrehun eta hogeita hamabi mila ehun eta laurogeita hamasei euro eta laurogeita hamazazpi zentimo (7.232.196,97) erabiliko dira.

– 4. lerroako.– Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), hondakinak bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, etab.) instalazioei, tratamendu-instalazioen hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta Berreskuratutako Erregai Solidoa prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak. Gehienez hiru milioi ehun eta laurogeita bederlatzi mila eta laurogeita hamasei euro eta zazpi zentimo (3.189.096,07) erabiliko dira.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 14. artikuluekin bat etorriz, horretarako eraturako Balorazio Epaimahaiak dagokion ebazpen-proposamena egin du. Proposamen horrek, aurrekontu-mugetara egokituta, Agindu hori aplikatuz dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak zehazten ditu, baita dirulaguntzaren zenbatekoa, ezetsitako eskabideak eta ezesteko arrazoiak ere.

2.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak eskumena du onuradunak eta eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak behin betiko zehazteko, 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 17.1 artikulua ezartzen duenez, deialdiaren ebazpena Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak programa horren esparruan ematen dituen dirulaguntzak emateko ebazpenaren mende egongo da. Beraz, ebazpen honen eraginkortasuna erakunde horrek emandako erabakiaren mende geratuko da.

4.– 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 17.4 artikulua honako hau dio: erakunde onuradunen batek 2023ko ekainaren 30a baino lehen uko egiten badio jaso duen dirulaguntzari edo jarduketa data hori baino lehen ez hasteagatik errebokatzea adosten bada, ebazpenean zehaztuta egongo da bai partez diruz lagundutako proiektuen bai aurrekontu ezagatik dirulaguntzarik gabe geratutako lehentasun-hurrenkera, dirulaguntzak jaso ditzaten.

Ikusirik 2021eko urriaren 13ko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten baita; 2022ko irailaren 21eko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena; otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei dirulaguntza ematea, bertan zehazten diren proiektuetarako eta zenbatekoekin. Era berean, I. eranskinean proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa adierazten da, baita hura finantzatzen duen programa ere:

- EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana (Next Generation EU funtsak).
- Ekonomia Zirkularraren Programa 2021.
- PIMA Hondakinak 2021.
- EEEEC 2022 ezartzen laguntzeko plana (Next Generation EU funtsak).
- Udal-hondakinen kudeaketa hobetzeko programa 2022.
- PIMA Ekonomia Zirkularra 2022.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean argitaratzea atzera bota dituzten dirulaguntzen eskabideen zerrenda.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean adierazitako erakundeei eskatutako dirulaguntza ukatzea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Laguntzari uko eginez gero edo laguntzaren bat ezeztatuz gero, diruz lagunduko diren lehentasun-ordena zehaztea, bai partzialki diruz lagundu zituzten proiektuak, bai aurrekontu-zuzkidurarik ez egoteagatik hasieran diruz lagundu ez zirenak (IV. eranskina).

Bosgarrena.– Ebazpen hau Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak programa honen esparruan agintzen dituen dirulaguntzak emateko ebazpenaren mende dago.

Seigarrena.– Onuradunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 18. artikuluan jasotzen diren betebeharrak bete beharko dituzte. Agindu horren bitartez EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri dira eta horretarako deialdia egiten da. Agindu hori 2021eko irailaren 21eko Aginduaren 4. artikulua aldatu zuen.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitara dadin agintzea, dirulaguntzak emateko prozedura orotan eman behar den publizitate-printzipioa betez.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,  
AMAIA BARREDO MARTÍN.

2023ko maiatzaren 11, osteguna

I. ERANSKINA  
EMANDAKO LAGUNTZAK

1. LERROA: BILKETA BEREIZI BERRIAK EZARTZEA, BEREIZKI BIOHONDAKINAK, ETA DAUDENAK HOBETZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
055-PROT-2021	Barrrikako Udala	Barrrikako udalerrian 5. edukiontzia ezarpena zabaltzea eta hobetzea.	81,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
036-PROT-2021	Itsasondoko Udala	Itsasondoko konpostatze komunitarioaren esperientzia zabaltzea eta finkatzea.	80,50	21.846,93	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
037-PROT-2021	Burgeluko Udala	Hondakin organikoen etxerik gabeko bilketa eta konpostatze komunitarioa.	80,50	24.731,76	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
003-PROT-2021	Nerbioi-ibaizabal Mankomunitatea	Etxeko biohondakin gaikako bilketa bultzatzea Nerbioi-ibaizabal eskualdean.	80,00	191.997,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
011-PROT-2021	Lasarte-Oriako Udala	Lasarte-Oriar errefusa biltzeko edukiontzi irisgarrietan erabiltzailea identifikatzeko sistema ezartzea.	79,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
053-PROT-2021	Astigarragako Udala	Astigarragako udalerrian —bai herrigunean, bai industrialdeetan— Biohondakin gaikako bilketa hobetzeko proiektua.	79,00	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
026-PROT-2021	Usurbilgo Udala	Usurbilen biohondakin gaikako bilketa hobetzeko lanak.	77,50	41.901,19	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
002-PROT-2021	Lea Artibaiko Udalerrien Mankomunitatea	Lea Artibaian 5. edukiontzia eta konpostatzea ezartzea bultzatzeko proiektua.	77,00	71.261,75	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
046-PROT-2021	Guardiako Kuadrilla Arabako Errioxa	Konpostatze komunitarioko eremuak Arabako Errioxan 2021-2023.	77,00	168.174,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
044-PROT-2021	Zaldibiako Udala	Zaldibiako biohondakin konpostatze komunitarioako proiektua.	76,50	46.325,79	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
008-PROT-2021	Lizartzako Udala	Lizartzako auzotako konpost guneak hobetzeko eta egokitzeko obrak.	75,50	10.748,19	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
032-PROT-2021	Ezkio-Itsasoko Udala	Konpostatze komunitarioako proiektua Itsason.	75,50	10.790,69	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
054-PROT-2021	Garbiker M. P. AB S.A.	Bizkaian berrerabiltzeko edukiontzien sarea (Zuriak) handitzea, ehun-hondakin zatikiaren bilketa bereizita hobetzeko.	75,50	200.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x

2023ko maiatzaren 11, osteguna

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
030-PROT-2021	Hernaniko Udala	Konpostatze komunitarioa hobetzea Hernanin.	73,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
022-PROT-2021	Gernika-Lumoko Udala	Gernika-Lumoko udalerriko frakzio organikoaren gaikako bilketa hobetzea.	72,50	13.642,35	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
040-PROT-2021	Arabako Lautadako Kuadrilla	Biohondakinak biltzeko sistema hobetzea, gaikako masa-bilketaren bidez, ekoizle handientzat eta altueran eraikitako etxebizitzentzat.	72,00	200.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
017-PROT-2021	Alegria-Dulantziko Udala	Konpostatze komunitarioa Alegria-Dulantziko udal-baratzeetan.	70,50	5.800,50	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
065-PROT-2021	Arratiako Udalerrien Mankomunitatea	Hondakin gaikako bilketa hobetzeko proiektua, bereziki frakzio organikoarena Arratian.	70,50	194.310,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
099-PROT-2021	Arabako Mendialdeko Kuadrilla	Arabako Mendialdean tokiko sortzaile handien biohondakinak in situ kudeatzeko eta kalitate handiko gaikako bilketarako obra zibila eta makineria.	70,00	77.834,71	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
042-PROT-2021	Zamudioko Udala	Sortutakoaren araberako ordainketarako urratsak.	69,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
031-PROT-2021	Iururako Udala	Sarrailak instalatzea gai organikoko eta errefusako edukiontzietan.	68,50	898,32	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
041-PROT-2021	Ataungo Udala	Ataungo biohondakin konpostatze komunitarioaren bidezko konpost komunitarioa.	68,50	3.969,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
080-PROT-2021	Debako Udala	Deban eta Itziarren konpostatze komunitarioa hobetzea	68,50	11.700,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
019-PROT-2021	Aiarako Kuadrilla	Sortzaile handietan biohondakinak atez ate biltzeko zerbitzu berriak ezartzea.	67,50	142.660,41	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
059-PROT-2021	Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea	Hobekuntza teknologikoa biohondakin bilketa areagotzeko eta errefusa murrizteko.	65,50	187.940,52	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
060-PROT-2021	Sestaoko Udala	Hiru hilean behingo kanpainak bosgarren edukiontzien ezarpena eta hezkuntza bultzatzen jarraitzeko.	64,50	9.531,90	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
006-PROT-2021	Sopelako Udala	Lorezaintza- eta inausketa-hondarrak berezita biltzea eta errefusatik kentzea Sopelan.	64,00	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x

2023ko maiatzaren 11, osteguna

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
073-PROT-2021	Sasieta Mankomunitatea	Sortutakoaren araberako ordainketa-sistema bat ezartzea Zaldibian.	63,50	18.504,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
057-PROT-2021	Laudioko Udala	Materia organikoaren gaikako bilketa gehitzea Laudioko bilketa pneumatikoan.	61,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
010-PROT-2021	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea	Biohondakin bilketa bereizita hobetzea Txorierrin.	59,50	179.403,30	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
064-PROT-2021	Aguraingo Udala	Frakzio organikoaren bilketa buzoiak instalatuz.	59,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
016-PROT-2021	San Markos Mankomunitatea	San Markos Mankomunitatearen eskumen-esparruan biohondakina bereizita biltzeko behin betiko bultzada.	58,00	200.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
028-PROT-2021	Gorlizko Udala	5. edukiontzia biltzeko zerbitzua indartzea Gorlizen.	58,00	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
023-PROT-2021	Bilboko udala	Hoteletan etxeokak ez diren hondakin bilketa hobetzeko proiektu pilotua.	56,00	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
018-PROT-2021	Gorbeialako Inguruen Partzuergoa	Konpostatze komunitarioko guneak kontrolatzeko eta mantentzeko proiektua.	55,50	57.002,40	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
024-PROT-2021	Gernika-Lumoko Udala	Etxeko olioaren gaikako bilketa hobetzeko sentsibilizazio-kanpaina Gernika-Lumon.	55,50	3.195,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
088-PROT-2021	Anoetako Udala	Anoetako autokonpostatze-puntuak: Garapen-plana.	55,00	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
056-PROT-2021	Garbitania Zero Zabor S.L.	Hernaniko gaikako bilketan tokiko ekoizle nagusien biohondakin sailkapena hobetzeko ibilgailu bat erostea.	54,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana <sup>1</sup> Ekonomia Zirkularren Programa 2021 <sup>2</sup>	x
005-PROT-2021	Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitatea	Mankomunitatearen lurraide-esparruan 5. edukiontzi marroi pertsonalizatua (materia organikoa) erabat ezartzeko azken fasea.	52,50	200.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x

<sup>1</sup> EEEC 2021 ezartzen laguntzeko Planaren 13.354,87 euro<sup>2</sup> 36.645,13 euro 2021eko Ekonomia Zirkularren Programatik

2023ko maiatzaren 11, osteguna

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
014-PROT-2021	Urola Kostako Udal Elkarte	Urola Kostako Udal Elkarteko tratamendu biologikoko instalazio espezifikoetarako biohondakinaren gaikako bilketa zabaldu eta hobetzeko proiektua.	52,00	105.760,35	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
090-PROT-2021	Errigoitiko Udala	Erabilitako olio bereizita biltzeko plana Errigoitin.	51,50	12.240,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
009-PROT-2021	Lea Ibarreko Udal Txikien Mankomunazgoa	5. edukiontzia duen bilketa organikoko sistema baten proiektua eta gainerako hondakin sailkapena.	50,00	32.463,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
058-PROT-2021	Debagoieneko Mankomunitatea	Debagoieneko Mankomunitateko edukiontzietan erabilitako etxeko olio gaika biltzeko zerbitzua hobetzeko proiektua.	44,00	35.424,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
061-PROT-2021	Arabako Mendialdeko Kuadrila	Toki-mailan kalitate handiko gaikako bilketarako eta sorgailu handien biohondakin in situ kudeaketarako edukiontzia eta bestelako materialak Arabako Mendialdean.	44,00	9.310,76	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
076-PROT-2021	Txingudiko Zerbitzuak S.A.	Biohondakin bilketa hobetzeko eta edukiontzia berritzeko proiektua.	44,00	200.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
007-PROT-2021	Debabairrena Eskualdeko Mankomunitatea	Debabairreneko landa-eremuko jatetxeetan biohondakinak biltzeko zerbitzu berria ezartzea.	43,00	192.170,44	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
085-PROT-2021	Ekotrade RCDS S.L.	BALIOA. Ehun-hondakinak birziklatzea, zabortegetara ahalik eta gutxien iristeko eta herritarrak kontzientziatzeko.	35,00	10.712,90	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
087-PROT-2021	Portugaleteko Udala	ekoizle handien biohondakin gaikako bilketa ezartzeko bilketa-ibigailua erostea.	32,50	50.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
072-PROT-2021	Bakioko Udala	Ettxeko olio biltzeko zerbitzu integrala.	31,50	13.207,50	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
1. lerroko emandako dirulaguntza, guztira.				3.555.458,66		

2023ko maiatzaren 11, osteguna

## 2. LERROA: BEREIZITA BILDUTAKO BIOHONDAKINAK TRATATZEKO INSTALAZIO ESPEZIFIKOAK ERAIKITZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
049-PROT-2021	Arabako Foru Aldundia	Konpostatze-instalazioa Vitoria-Gasteizen.	77,50	1.000.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
095-PROT-2021	Garbiker M. P. AB S.A.	Bizkaiko Konpostegia handitzea, konposta sortzeko Bizkaian Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko instalazioa.	75,50	761.866,62	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
100-PROT-2021	Asparrenako Udala	Gaika bildutako materia organikoa tratatzeko konpostatze-instalazioa Asparrenan.	74,50	618.318,81	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
094-PROT-2021	Garbiker M. P. AB S.A.	Bizkaian hiru eskualde-instalazio eraikitzea, eremu geografiko horietan Bereizita bildutako etxeko biohondakinak konpostatzeko.	74,00	1.000.000,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
051-PROT-2021	Getxoko Udala	Getxon konpostatze-instalazioa ezartzea, Garbikerrekin lankidetzan.	50,00	90.394,39	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
021-PROT-2021	Fernando Gutierrez Pajares	Ekoirole handien balorizazioarako fluxu jarraituko bermikonpostatze-instalazioa Jündiz industrialdean.	27,50	556.325,00	EEEEC 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
2. lerroko emandako dirulaguntza, guztira.				4.026.904,82		

2023ko maiatzaren 11, osteguna

## 3. LERROA: BEREZITA BILDUTAKO BESTE HONDAKIN-FLUXU BATZUK BERRERABILITZEKO ETA BIRZIKLATZEKO PRESTATZEKO INSTALAZIO BERRIAK ERAIKITZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
077-PROT-2021	Arabako Foru Aldundia	Bolumen handiko materiala kudeatzeko, konpontzeko eta berrerabiltzeko Arabako zentroa.	76,50	1.850.000,00	EEEE 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
086-PROT-2021	Gipuzkoako Foru Aldundia	Berrerabili daitezkeen Gipuzkoako hondakinak Berrerabilera Prestatzeko Zentroa (BPZ).	72,50	1.789.042,27	EEEE 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
079-PROT-2021	Cespa Gestión de Residuos S.A.	Hondakin plastikoetarako ekonomia zirkularra. Plastikozko errefusak birziklatzeko instalazioa Bilboko Portuko hondakinaren tratamendurako zentroan.	60,00	404.756,20	EEEE 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
039-PROT-2021	Emaus Gipuzkoa S.L.	Ehunak eta Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak (TEEH) berrerabiltzeko ekocenterrak Gipuzkoan.	59,50	315.599,54	EEEE 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
067-PROT-2021	Plasticenergy S.L.	Plastikoaren industriako ekonomia zirkularreko polo bat sortzea.	53,00	1.000.000,00	EEEE 2021 ezartzen laguntzeko plana	x
104-PROT-2021	Ekotrade RCDS S.L.	BERRITEX: Ehun-hondakinak birziklatzea, zabortegetara ahalik eta gutxien iristeko eta herritarrek kontzientziatzeko.	41,50	571.558,90	EEEE 2021 ezartzen laguntzeko plana <sup>3</sup> EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana <sup>4</sup>	x
081-PROT-2021	Sterile Services S.L.	Hondakin biosanitarioen edukiontziak esterilizatzeko eta desinfektatzeko prozesu berri bat garatzea.	34,50	102.831,20	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
089-PROT-2021	Ecogras Recuperación y Reciclado S.L.	Kafea.	32,50	198.408,86	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	
105-PROT-2021	Ekotrade RCDS S.L.	ECOCIR: Ibaietan eta, beraz, itsasoetan plastikorik eta mikroplastikorik ez egotea. Asfaltoaren formulazioan betunaren zati bat hondakin plastikoekin ordeztzea.	24,50	1.000.000,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
3. lerroako emandako dirulaguntza, guztira.				7.232.196,97		

<sup>3</sup> 353.830,12 euro EEEC 2021 ezartzen laguntzeko planetik<sup>4</sup> 217.728,78 euro EEEC 2022 ezartzen laguntzeko planetik

2023ko maiatzaren 11, osteguna

4. LERROA: BILKETA-INSTALAZIOEI (GARBIGUNEAK, ADIBIDEZ), HONDAKINAK BEREIZTEKO ETA SAILKATZEKO (ONTZIAK, PAPERAK, ETAB.) INSTALAZIOEI, TRATAMENDU-INSTALAZIOEN HOBETUNTZARI, DAUDEN INSTALAZIO MEKANIKO-BIOLOGIKOEI ETA BERRESKURATUTAKO ERREGAI SOLIDOA PRESTATZEKO INSTALAZIOEI DAGOZKIEN INBERTSIOAK

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
043-PROT-2021	Urola Kosta Mankomunitatea	Urola Kostako garbiguneak hobetzea, hondakinak bereizita biltzeko eta hondakin-fluxu berriak eransteko.	79,00	400.000,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
020-PROT-2021	Aiarako Kuadrilla	Hobekuntzak Laudioko Garbigunean.	73,00	70.393,39	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
096-PROT-2021	Garbiker M. P. AB S.A.	Bizkaiko Lurralde Historikoko garbigune finko eta mugikorren sarea hobetzea.	73,00	400.000,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
097-PROT-2021	Garbiker M. P. AB S.A.	Artigasen dagoen Bizkaiko TMBn inbertsioa, bizziklatu daitekeen beira berreskuratzekeo eraginkortasuna handitzeko.	72,50	400.000,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
047-PROT-2021	Arabako Foru Aldundia	Garbigune bat eraikitzea Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillan.	58,00	400.000,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
048-PROT-2021	Arabako Foru Aldundia	Puntu berde mugikor berria Arabako Lurralde Historikoan.	58,00	132.190,70	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
015-PROT-2021	Hernaniko Udala	Etxeo hondakin parekagarri eta berezietarako bi garbigune mugikor abian jartzea.	57,50	66.942,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
091-PROT-2021	San Markos Mankomunitatea	San Markos Mankomunitateak kudeatzen dituen Garbiguneen (5) egungo baldintzak hobetzea.	55,00	49.174,01	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
078-PROT-2021	Txingudiko Zerbitzuak S.A.	Irungo eta Hondarribiko garbiguneak hobetzeko proiektua.	52,50	67.570,74	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
052-PROT-2021	Tolosaldeako Mankomunitatea	San Blaseko Garbigunea egokitzea TEEHak biltzeatzeko.	50,50	73.827,22	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
092-PROT-2021	Bilboko udala	Elorrietako Bilbogarbi egokitzea eta berritzea.	50,50	400.000,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
025-PROT-2021	Gernika-Lumoko Udala	Gernika-Lumoko Ibarra industrialeko hondakin asimilagarriak gaika biltzeko instalazioa hobetzea.	49,50	4.498,94	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x
098-PROT-2021	Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea	Azkoitiko Garbigunea zaharbertitzea.	41,50	307.800,00	EEEE 2022 ezartzen laguntzeko plana	x

2023ko maiatzaren 11, osteguna

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Finantzaketa-programa	Next funtsak
013-PROT-2021	Berziklatu S.L.	Bolumen handiko hondakinak birziklitzeko prozesuaren berrikuntza.	41,00	298.184,74	EEEC 2022 ezartzen laguntzeko plana <sup>5</sup> Udal-hondakin kudeaketa hobetzeko programa <sup>6</sup>	x
038-PROT-2021	Zorroza Gestión S.L.	UP-CSR. Zorroza Gestio Berreskuratutako Erregai Solidoa (CSR) prestatzeko instalazioaren ekipamendua hobetzea.	40,00	118.514,33	PIMA Ekonomia Zirkularra 2022 <sup>7</sup> Ekonomia Zirkularren Programa 2021 <sup>8</sup> PIMA Hondakinak 2021 <sup>9</sup>	
4. lerroko emandako dirulaguntza, guztira.				3.189.096,07		

<sup>5</sup> 256.521,92 euro EEEC 2022 ezartzeko laguntza-planari dagozkie<sup>6</sup> 19.442,65 euro Udal Hondakin Kudeaketa Hobetzeko Programari dagozkie<sup>7</sup> 22.220,17 euro PIMA Ekonomia Zirkularra 2022ri dagozkie<sup>8</sup> 22.954,35 euro 2021eko Ekonomia Zirkularren Programari dagozkie<sup>9</sup> 95. 559,68 euro PIMA Hondakinak 2021i dagozkie

2023ko maiatzaren 11, osteguna

## II. ERANSKINA

## ATZERA EGINDAKOTZAT JO DIREN EDO ATZERA EGITEA AURKEZTU DUTEN PROIEKTUAK

## 1. LERROA: BILKETA BEREIZI BERRIAK EZARTZEA, BEREIZKI BIOHONDAKINAK, ETA DAUDENAK HOBETZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Arrazoiak
001-PROT-2021	Trapagarango Udala	Etxeko olioak biltzea.	Ez du epe barruan zuzendu.
012-PROT-2021	Gizaburuagako Udala	Lariz auzoko edukiontzia lekuz aldatzea.	Ez du epe barruan zuzendu.
027-PROT-2021	Olaberriako Udala	Kafe-kapsulen 2 kontainer jarzea.	Ez du epe barruan zuzendu.
034-PROT-2021	Tolosaldeako Mankomunitatea	Kafea proiektua. Sentsibilizazioa, ekodiseinua eta balorizazio ekozirkularra Tolosaldeako Mankomunitatean.	Ez du epe barruan zuzendu.
035-PROT-2021	Betolazako Administrazio Batzarra	Biobirringailua.	Ez du epe barruan zuzendu.
033-PROT-2021	Tolosaldeako Mankomunitatea	San Blas Garbigunean tresna elektriko eta elektronikoak hondakinak biltzeko egokitzapena.	052-PROT-2021ean eskaera behar bezala aurkezteko atzera egiteko eskaera aurkeztu du.
045-PROT-2021	Otxandioko Udala	Ekonomia zirkularren sustapena Otxandioko udalerrian.	Atzera egiteko eskaera aurkeztu du.

## 2. LERROA: BEREIZITA BILDUTAKO BIOHONDAKINAK TRATATZEKO INSTALAZIO ESPEZIFIKOAK ERAIKITZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Arrazoiak
050-PROT-2021	Izaskun Gorostiaga Melchisidor	Biometanizazio-instalazioa, Bizkaiko gaikako bilketako hondakin organikotik abiatuta.	Atzera egiteko eskaera aurkeztu du.

## 3. LERROA: BEREIZITA BILDUTAKO BESTE HONDAKIN-FLUXU BATZUK BERRERABILITZEKO ETA BIRZIKLATZEKO PRESTATZEKO INSTALAZIO BERRIAK ERAIKITZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Arrazoiak
075-PROT-2021	Jose Ignacio Asensio Bazterra	Berrerabili daitezkeen Gipuzkoako hondakinak Berrerabilera Prestatze Zentroa (BPZ).	086-PROT-2021ean eskaera behar bezala aurkezteko atzera egiteko eskaera aurkeztu du.

2023ko maiatzaren 11, osteguna

## III. ERANSKINA

## LAGUNTZA UKATU ZAIEN PROIEKTUAK

## 1. LERROA: BILKETA BEREIZI BERRIAK EZARTZEA, BEREZIKI BIOHONDAKINAK, ETA DAUDENAK HOBETZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
063-PROT-2021	Sasieta Mankomunitatea	Kafe-kapsulen balorizazioa Sasieta Mankomunitatean.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
066-PROT-2021	Asparrenako Udala	Materia organikoaren gaikako bilketa ezartzea Asparrenan.	PIMA dirulaguntza-programa beraren finantzaketa lortu zuen 2020ko deialdian.
068-PROT-2021	Vitoria-Gasteizko Udala	Atez ate biltzeko eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak kudeatzeko zerbitzua Vitoria-Gasteizko udalerrian.	Ez du betetzen Aginduaren 2. artikuluko «Erakunde onuradunak» 4. Puntua.
082-PROT-2021	Santurtziko Udala	Biohondakinak bereizita biltzeko ibilgailuak erostea.	Ez du betetzen Aginduaren 10. artikuluko «Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak» 1. Puntua.
101-PROT-2021	Santurtziko Udala	Hondakin organikoak biltzea.	Ez du betetzen Aginduaren 10. artikuluko «Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak» 1. Puntua.

2023ko maiatzaren 11, osteguna

3. LERROA: BEREIZITA BILDUTAKO BESTE HONDAKIN-FLUXU BATZUK BERRERABILTZeko ETA BIRZIKLATZeko PRESTATZeko INSTALAZIO BERRIAK ERAIKITZEA

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
069-PROT-2021	Papresa, S.A.	Papresa green.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
103-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	Ekotur. Gipuzkoak duen lurzoru kutsatuen arazoari soluzio bat ematea.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).

2023ko maiatzaren 11, osteguna

4. LERROA: BILKETA-INSTALAZIOEI (GARBIGUNEAK, ADIBIDEZ), HONDAKINAK BEREIZTEKO ETA SAILKATZEKO (ONTZIAK, PAPERAK, ETAB.) INSTALAZIOEI, TRATAMENDU-INSTALAZIOEN HOBEKUNTZARI, DAUDEN INSTALAZIO MEKANIKO-BIOLOGIKOEI ETA BERRESKURATUTAKO ERREGAI SOLIDOA PRESTATZEKO INSTALAZIOEI DAGOKIEN INBERTSIOAK

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
004-PROT-2021	Gipuzkoako Hondakinak Kudeaketa S.A.U.	Sasietako hiri-hondakinak transferitzeko estazioa eraikitzea.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
029-PROT-2021	Bizkaiko Zabor Berzikilategia, S.L.	Ontziratzea.	Ez da aurrekontu-zuzkidurara iristen.
062-PROT-2021	Debagoieneko Mankomunitatea	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak Debagoieneko Mankomunitateko Garbigunean biltzeko eta biltegratzeko proiektua.	Ez da aurrekontu-zuzkidurara iristen.
070-PROT-2021	Vitoria-Gasteizko Udala	Garbigunea - hurbiltasuneko garbigunea - Zirkular Gunea Salburua.	Ez du betetzen Aginduaren 2. artikuluko «Erakunde onuradunak» 4. puntua.
071-PROT-2021	Basauriko Udala	Hondakinak transferitzeko instalazioa eraikitzea.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
074-PROT-2021	Bakioko Udala	Kafe-kapsulak biltzeko zerbitzu integrala.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
083-PROT-2021	Santurtziko Udala	Hondakinak biltzeko zerbitzurako pabiloia eraikitzea.	Ez da aurrekontu-zuzkidurara iristen.
084-PROT-2021	Papresa, S.A.	Baskula eta polipastoa hondakinak berreskuratzeke instalazioetarako.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
093-PROT-2021	Getxoko Udala	Errefusa erdibitzeko instalazioa ezartzea, ontzi arinak eta metalak hobeto berreskuratzeke ondorengo tratamenduetan.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
102-PROT-2021	Papresa, S.A.	Hondakinak berreskuratzeke instalazioetarako erreusen eta cleaner-en uhal garraiatzailea.	Ez du betetzen Aginduaren 4. artikuluko («Dirulaguntzen xede diren proiektuak») 2. puntua («Diruz lagundu daitezkeen proiektuak»).
106-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	BRIKETAK: Garbigune mugikorra. Zabortegean amaitzen den hondakin kopurua 0 izatea eta, horrekin, erregai fosila ordeztzea.	Ez da aurrekontu-zuzkidurara iristen.
107-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	BRIKETAK: Powerscreen sailkapen-bahea Zabortegean amaitzen den hondakin kopurua 0 izatea eta, horrekin, erregai fosila ordeztzea.	Ez da aurrekontu-zuzkidurara iristen.
108-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	BRIKETAK: Berreskuratutako Erregai Solidoa fabrikatzeko tobera eta birringailua. Zabortegean amaitzen den hondakin kopurua 0 izatea eta, horrekin, erregai fosila ordeztzea.	Ez da aurrekontu-zuzkidurara iristen.

2023ko maiatzaren 11, osteguna

#### IV. ERANSKINA

##### HURRENKERA-ORDENA

Deialdiaren erregulazioan jasotako aurreikuspena betetze aldera, Balorazio Epaimahaiak erabaki du 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 16.4 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatuz gero, lortutako zenbatekoa proiektuetara bideratuko dela, hurrenkera-ordena honekin:

Lehenik eta behin, partzialki diruz lagundutako edo diruz lagundu gabeko 4. lerroko 7 proiektuak diruz laguntzeko erabiliko da, proiektuen puntuazio-ordenaren arabera, eta hori guztia kontuan hartuta aurretik adierazitakoa, hau da, leku honek biztanlerian eragin handiena duten proiektuak babesten dituela. Soberakin posible hori banatzeko unean, kontuan hartu behar da 4. lerroan Next Generation EU eta PIMA Hondakinak 2021 Funtsei dagozkien zuzkidurak daudela.

#### 4. LERROA: BILKETA-INSTALAZIOEI (GARBIGUNEAK, ADIBIDEZ), HONDAKINAK BEREIZTEKO ETA SAILKATZEKO (ONTZIAK, PAPERAK, ETAB.) INSTALAZIOEI, TRATAMENDU-INSTALAZIOEN HOBEKUNTZARI, DAUDEN INSTALAZIO MEKANIKO-BIOLOGIKOEI ETA BERRESKURATUTAKO ERREGAI SOLIDOO PRESTATZEKO INSTALAZIOEI DAGOZKIE INBERTSIOAK

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (€)	Gehieneko dirulaguntza (€)
013-PROT-2021	Berziklatu, S.L.	Bolumen handiko hondakinak birziklitzeko prozesuaren berrikuntza.	41,00	298.184,74 €	400.000,00 €
029-PROT-2021	Bizkaiko Zabor Berziklategia, S.L.	Ontziratzea.	40,00	0,00 €	143.089,86 €
106-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	BRIKETAK: Garbigune mugikorra. Zabortegian amaitzen den hondakin kopurua 0 izatea eta, horrekin, erregai fosila ordeztzea.	38,50	0,00 €	112.838,39 €
107-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	BRIKETAK: Powerscreen sailkapen-bahea. Zabortegian amaitzen den hondakin kopurua 0 izatea eta, horrekin, erregai fosila ordeztzea.	38,50	0,00 €	400.000,00 €
108-PROT-2021	Ekotrade RCDS, S.L.	BRIKETAK: Berreskuratutako Erregai Solidoa fabrikatzeko tobera eta birringailua. Zabortegian amaitzen den hondakin kopurua 0 izatea eta, horrekin, erregai fosila ordeztzea.	38,50	0,00 €	400.000 <sup>1</sup> €
062-PROT-2021	Debagoieneko Mankomunitatea	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak Debagoieneko Mankomunitateko Garbigunean biltzeko eta biltegitratzeko proiektua.	38,00	0,00 €	25.083,38 €
083-PROT-2021	Santurtziko Udala	Hondakinak biltzeko zerbitzurako pabilioa eraikitzea.	26,50	0,00 €	200.422,85 €

<sup>1</sup> 108-PROT-2021 espedienteak 2021eko Ekonomia Zirkularraren Programatik eta PIMA Hondakinak 2021 programatik datozen soberakinak baino ezingo ditu diruz lagundu.

2023ko maiatzaren 11, osteguna

Bigarrenik, 1. lerroan finantzaketa handiagoa jaso dezaketen proiektuak finantzatzeko erabiliiko da, proiektu bakoitzeko mugak honela handituz:

- 50.000 € arteko muga 100.000 €-ra zabalduko da.

- 200.000 € arteko muga 400.000 €-ra zabalduko da.

Proiektu horiek, halaber, puntuazioaren arabera finantzatuko dira, soberakina agortu arte.

Eta, hirugarrenik, 2. lerroaren zuzkidura handituko da, finantzaketa handiagoa jaso dezaketen proiektuak finantzatzeko, proiektu bakoitzeko muga 1.000.000,00 eurotik 2.000.000,00 eurora handituz. Kasu horretan ere, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren hurrenkera errespetatuko da.